ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Espediente zenbakia: O/986
Gaia: ARRIGORRI HONDARTZAKO ZERBITZUGUNEA USTIATZEKO ZERBITZUA (TXIRINGITOA) (2022-24)
Espedientea tramitatzen duen arloa: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak
Kontratu mota: Ustiatzeko lizentzia
Kontratuaren iraupena: 2022/04/30etik 2024/04/29ra
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: Gutxienez 34.000 euroko kanona
CPV kodea: 55512000-2 Kantina kudeatzeko zerbitzuak

ARRIGORRI HONDARTZAKO ZERBITZUGUNEA USTIATZEKO ZERBITZUA (TXIRINGITOA)

BALDINTZA TEKNIKO PLEGUA

Edukia

1. Kontratuaren Xedea. 2
2. Beharrezko Baimenak eta Antolaketa. 2
3. Zerbitzuen Definizioa: 3
   3.1 Zerbitzuen zerrenda 3
   3.2 Lizitazioarekin lotutako eraikineko azalerak 3
4. Zerbitzuen Deskribapena: 3
   4.1 Taberna-kafetegia zerbitzua: 3
   4.2 Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzuko (A) Biltegia 4
   4.3 Emakume eta gizonen komunak. 5
   4.4 Garbiketa Zerbitzua 5
5. Zerbitzuaren Epeak eta Ordutegia 5
   5.1 Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua 5
   5.2 Taberna-kafetegia zerbitzua 6
   5.3 Terraza 6
   5.4 Emakume eta gizonen komunak. 6
6. Zerbitzuaren Salneurriak 7
   6.1 Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua 7
   6.2 Tabernako Gaien Salneurria 7
   6.3 Komunen Zerbitzua 7
7. Betebeharreko Ingurugiro Irizpideak 7
8. Emakidunaren betebeharrak. 7
9. Zerbitzuaren Gastuak 9
10. Zerbitzua ikuskatzea: 9

ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

1. Kontratuaren Xedea.

Baldintza tekniko agiri hauen pean egingo den kontratua izango da Arrigorri hondartzako zerbitzugunea aldi baterako lagatzeko jarduera hauek esplotatzeko:

- Taberna-kafetegia: Izozkiak, gozokiak, edariak, pintxoak, bokadiloak, oilaskoa eta bestelakoak saltzeko.
- Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko alogera zerbitzua esplotatzeko.
- Komunak, dutxak eta aldageletako zerbitzua emateko.
- Terraza: 35 m2-ko terraza bat jartzeko baimena emango da (2022ko maiatzaren 1etik irailaren 30erarte 55,00 m2ko izango da) mahaiak eta aulkiak jartzeko. Bakarrik ahal izango dira jarri mahaiak eta aulkiak markatzen den marraren barruan eransten den planoaren arabera (ERANSKINA 1).

Jarduera guztietarako baldintzak Udalak finkatuko ditu. Baimentzen diren janariak eta osasun baldintzak jarrita daude Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako txostenean.

Kontratazio espedientearen izapidetzea eta, hala badagokio, kontratu hau gauzatzea edozein unetan bertan behera utzi edo aldatu ahal izango da aipatutako kontratazioren interesdunak inolako kalte-ordainik jaso gabe.

CPV kodea	55512000-2 Kantina kudeatzeko zerbitzuak

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

2. Beharrezko Baimenak eta Antolaketa.

Ondarroako Udalak ahalmena du instalazio hauek esplotatzeko, Ingurumen Ministerioaren 1998ko uztailaren 23ko Ministeritza Aginduz onartutako emakidaren egile-penaren arabera eta horren luzapenaren 2015eko ekainaren 10eko erabakiaren arabera. Baita ere erakunde horren baimena dago 35 m²-ko terrazan mahaiak eta aulkiak jartzeko markatzen den marraren barruan eta eransten den dokumentuaren arabera (ERANSKINA 1). (2022ko maiatzaren 1etik irailaren 30erarte 55,00 m2ko izango da).

Ondarroako Udalak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrean dagokion tramiteak egin ondoren, terrazaren azalera handitzen bada, baimen honek Udalari suposatzen dion lur publikoaren okupazioaren tasaren igoera, hondartzako zerbitzugunearen emakidunak ordaindu beharko du.

Emakidunak taberna-kafetegia ustiatzeko bidezko baimenak eskuratu beharko ditu, era honetako jardueretarako instalazio eta funtzionamenduei dagokienez, eman diren edo emango diren xedapen guztiak bete beharko dituelarik.

Jarduera guztietarako baldintzak Udalak finkatuko ditu. Baimentzen diren janariak eta osasun baldintzak jarrita daude Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako txostenean. Osasun txostena agiri honi erantsita doa eta kontratu izaera du (ERANSKINA 4).

3. Zerbitzuen Definizioa:

3.1 Zerbitzuen zerrenda

Taberna-kafetegi zerbitzua.
Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua
Emakume eta Gizonezkoen komunak.
Dutxak: erabiltzaile anitzen gunea.
Garbiketa Zerbitzua: Taberna, terraza, komunak, eta dutxak, zehaztutako maiztasunarekin.

3.2 Lizitazioarekin lotutako eraikineko azalerak

ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOA		
	Irabazi ez asmoko erabilera	Irabazi asmoko erabilera
Gizonezkoen komunak	23,00 m^2	
Emakumeen komunak	23,00 m^2	
Kontagailuen gela	6,00 m^2	
Aulki, hamakak eta eguzkitakoak gordetzeko		36,00 m^2
Taberna		18,00 m^2
Sukaldea		24,00 m^2
Biltegia 2 (1. Pisuan)		27,00 m^2
Terraza		35,00 m^2 (2022ko maiatzaren 1etik irailaren 30erarte 55,00 m2)

4. Zerbitzuen Deskribapena:

4.1 Taberna-kafetegia zerbitzua:

<u>Emakidunaren kontu izango da taberna-kafetegia zerbitzua emateko beharrezko elementuen horniketa egitea eta elementu hauek kontratua amaitzean udalaren esku geratuko dira.</u>

Udalak emakidunaren erabilerarako utziko ditu udalarenak diren eta taberna-kafetegian dauden material eta tresna hauek*:

- Instalazioak: Ur beroa, ur hotza, saneamendua, elektrizitatea, gasa, suen kontrakoa eta aireztapena.
- Biltegia (B): (lehen solairuan)
- Makinaria:
    - Taberna: Izotz makina, fregadera, baso garbitzailea, 3 botellero (hozkailuak),etab.
    - Sukaldea: 2 fregadera, ontzi garbigailua, frigorifikoa, lan mahaiak, 2 frijigailu, plantxa, sua, labea, kanpaia, mikrouhina, estanteriak, aireztapena, su itzalgailuak, oilaskoak erretzeko makina, etab.

*(Tresna eta makineria guztiaren zerrenda osoa INBENTARIOAN dago, ERANSKINA 2)

Honako hauek dira gutxienez zerbitzua emateko eskatzen diren elementuak; betiere emakidunaren esku geratuko da zentzu honetan hobekuntzak eskaintzea.

- TABERNA:
    - Ehogailua
    - Kafe makina

  - Baso garbitzailea
  - Izotz makina
  - Hozkailuak (kamarak)
  - Ontziak eta tabernaren erabilerarako tresneria
  - Menajea (kutxarilak, kutxarak, sardeskak, katiluak, edalontziak, esne ontziak, te ontziak,platerak...)
  - Altzariak eta baldak.
- SUKALDEA:
  - Ontzi garbigailua
  - Frigorifikoa
  - Frijigailua
  - Sukaldea (plantxa, sua, labea)
  - Oilaskoa erretzeko makina
  - Mikrohuina
  - Altzariak eta estanteriak
  - Sukaldeko tresneria (sardeskak, labanak...)

Emakidunak ekartzen dituen makina eta elementuen berri emango dio udalari, honek inbentariatu eta onartu ditzan, ekarri aurretik, beti ere jatorrizko makinaria ordezkatzeko orduan.

Ustiatzen den lokala osatzen duten instalazioen barruan udalak emakidunaren esku ipintzen du inbentarioaren zerrendan agertzen diren elementuak (ERANSKINA 2). Ezinbestekoa izango da emakidunaren kontratuarekin batera sinatzea onartutzat emateko.

Hurrengo 30 eguneko epean elementu guztiak ondo funtzionatzen duten ala ez egiaztatu beharko du. Epe hau iraun ondoren ez da onartuko honen inguruko erreklamaziorik eta, horrenbestez, edozein hutsegite emakidunaren kargu joango da.

Ezin izango da eraikinean hobekuntza edo aldaketa lanik egin Udalaren baimenik gabe. Eta Udalak baimena ematen badu hobekuntza lanak lokalaren probetxurako geldituko dira.

Erreklamazio liburu bat edukiko du, erabiltzaileen kexak jasotzeko.

4.2 Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzuko (A) Biltegia

Emakidunaren ardura izango da aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua.

Emakidunaren ardura, udaldi guztian zehar, biltegia egoera onean mantentzea eta zerbitzuaren ardura izatea da: lanegunaren amaieratik, hurrengo lanegunaren hasiera arte, materialak modu txarrean ez pilatzea, eta bestetik, identifikazio sistemen bidez, hondartzaren erabiltzaile bakoitzari dagokion elementua modu eraginkor batez eskuratzea eta gordetzea.

(A) Biltegiaren aurrean eta zerbitzu honetara berariaz destinatutako langile baten bidez, erabiltzailearekin udarako aulkiak, eguzkitakoak eta/edo etzaulkiak biltegiratzeko alokairu-zerbitzua adostu ondoren, erabiltzaileari emango zaio, baita hura bildu, biltegiratu eta zaindu ere, udan erabiltzaileak nahi duen bezain sarri.

Erreklamazio liburu bat edukiko du, erabiltzaileen kexak jasotzeko.

4.3 Emakume eta gizonen komunak.

Instalazioak: Lau konketa, lau komun ontzi eta zortzi dutxa. Instalazioak kontserbazio-egoera onean mantendu behar ditu.

Honako hauek dira gutxienez zerbitzua emateko eskatzen diren elementuak; betiere emakidunaren esku geratuko da zentzu honetan hobekuntzak eskaintzea.

- Eskuak lehortzeko papergailuak
- Paperontziak
- Emakumeen higiene edukiontziak eta hauen mantenu zerbitzua (Gutxienez uda sasoirako)
- Emakidunaren kontu izango dira komunak erabiltzeko beharrezko gaiak edukitzea eta kokatzea.

Arrigorri hondartzako komun eta dutxen erabilera zaindu eta garbituko ditu. Garbiketa, erabiltzaile kopuruaren arabera beharrezkoa bada, zehaztutakoa baino gehiagotan.

- Udalak zehaztutako gutxiengo baldintzak: Egunero, osasun baldintza arruntetan gutxienez, BOST (5) aldiz garbituz (2 orduro). Asteburutan HAMAR aldiz (ORDURO).
- Instalazioen garbiketa ohiko garbiketa estandarren arabera egin beharko da.
- Emakidunaren ardura da egoera egokian izatea eta honetarako komunetan egindako lanen ziurtagiria agerian jarriko da, egunero egindako lanak definituz eta arduradunak izenpetuz. Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean, emakidunak Bizkaiko Foru Aldundiak bidaltzen dituen "Zerbitzu-eraikinaren irekiera, itxiera eta garbitasuna" fitxak bete beharko ditu. (ERANSKINA 3)

Erreklamazio liburu bat edukiko du, erabiltzaileen kexak jasotzeko.

4.4 Garbiketa Zerbitzua

Emakidunaren ardura da zerbitzua emateko beharrezko guneen nahiz materialen garbiketa: komunak, kabinak, dutxak, taberna, terraza eta biltegia.

Komunak egunero garbituko dira eta erabiltzaile kopuruaren arabera, beharrezkoa bada behin baino gehiagotan. Lizitatutako eraikin eta espazio publikoak gutxienez egunean behin garbituko dira (terraza, taberna, sukalde...)

Emakidunaren kontu izango dira garbitzeko beharrezko gaiak edukitzea eta kokatzea.

5. Zerbitzuaren Epeak eta Ordutegia

Zerbitzuak eskaintzeko ordutegiak jartzeko eta aldatzeko eskumena udalarena izango da, Udaldiari dagokionean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostuta.

5.1 Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua

Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua ematea udaldiarekin bat etorriko da, eta epe hau udalak jakinaraziko du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostuta.

Jendeari Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua eskaintzeko eguneroko ordutegia gutxienez 10:00etatik 20:00ak bitartekoa izango da, zerbitzua etengabe eta atsedenaldirik gabe. Horretarako, emakidunak bere langilegoa egoki antolatu beharko du.

5.2 Taberna-kafetegia zerbitzua

Taberna zerbitzua gutxienez udaldian eta Aste Santuan ematea bermatuko da baina epe hauetaz gain, urtean zehar ere, eman ahal izango da.

Tabernaren ordutegia: Ingurumen udal ordenantzaren 35. artikuluaren arabera, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak edo ordezko lege xedapenak ezarriko ditu establezimenduak ixteko ordutegiak, honen barnean, II. multzoari dagokiona, orokorrean, zera da:

	2 Taldea*
NEGUA	
Astegunak	06:00 - 01:00
Ostiral eta jaiegun bezperak	06:00 - 02:30
UDA	
Astegunak	06:00 - 01:30
Ostiral eta jaiegun bezperak	06:00 - 03:00

** Gutxienez sei ordu igaro beharko dira ixteko eta berriro irekitzeko ezarrita dauden orduen artean, lehenago itxiko balitz ere.*

Lokal bakoitzaren kanpoaldean identifikatzeko bereizgarri bat jarri beharko da, bereizgarri hori lokalaren taldeari dagokio. Honez gain, establezimenduek informazio-kartel bat jarri behar dute barruan eta leku ikusgarri batean, eta bertan zehaztu behar da lokala ixteko eta irekitzeko ordutegia. Horren helburua lokal horien erabiltzaileei informazioa argitzea eta kontrola eta zaintza erraztea dira

Taberna zerbitzuari dagokionez, bazkari eta afarien zerbitzuak bermatuko dira eta irekiera ordua, gutxienez, aulkien zerbitzuarekin bat emango da, 10:00etan.

5.3 Terraza

Terraza 9ak eta 23ak bitarteko denbora-epera mugatua gelditzen da. Bariku, zapatu, jaiegun bezperan eta ekainaren 1etik irailaren 30era arte, ordubete gehiago luzatu ahal izango da, hau da, gaueko 12ak arte. Eta herriko jai egunetan gaueko 02:00arte. Altzari guztiak egunero erabilera publikoa duen espaziotik erretiratu beharko dira.

5.4 Emakume eta gizonen komunak.

Komunaren zerbitzua gutxienez udaldian eta Aste Santuan ematea bermatuko da baina epe hauetaz gain, urtean zehar ere, eman ahal izango da.

Jendeari Komunak, dutxak eta aldagelak erabiltzeko zerbitzua eskaintzeko eguneroko ordutegia gutxienez 10:00etatik 21:00ak bitartekoa izango da, zerbitzua etengabe eta atsedenaldirik gabe.

Kontuan izan behar da taberna irekita dagoen bitartean komun-zerbitzua irekita egon beharko dela, nahiz eta hondartzako zerbitzuetarako ezarritako ordutegitik kanpo garatu, eta betiere terrazarako eta tabernarako araudiak ezarritako ordutegiaren barruan.

6. Zerbitzuaren Salneurriak

Zerbitzu ezberdinen salneurriak toki agerian jarriko dira.

Emakidunak hondartzan kartelak jarriko ditu, ordutegiak, prezioak etab. adierazteko. Aldez aurretik, horien edukia, diseinu eta kokapena Udalarekin adostuko ditu.

Kartelak euskaraz egingo dira, eta ahal dela piktogramen bidez lagunduta.

Emakidunari dagokio zerbitzu ezberdinen diru bilketa egitea.

6.1 Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko eta jasotzeko zerbitzua

Aulki, etzaulki eta eguzkitakoak gordetzeko alogera zerbitzuaren prezioak sasoiko, gehienez, hauek izango dira:

- etzaulkiak: 50 €/sasoia
- Aulkiak: 45 €/sasoia
- Parasolak: 40 €/sasoia
- Umeen jolasak: 15 €/sasoia

Salneurria denboraldi osorako izango da. Salneurri hau urtez urte Bizkaiko KPI arekin eguneratuko da.

6.2 Tabernako Gaien Salneurria

Tabernari dagozkion jaki eta edarien salneurria Emakidunak udalari proposatuko dio eta honek bere adostasuna gertu beharko die salneurri hauei.

6.3 Komunen Zerbitzua

Doan izango da.

7. Betebeharreko Ingurugiro Irizpideak

Emakidunak, zerbitzua ematen duen bitartean, zabor-bilketa sailkatua egiteko konpromisoa hartuko du.

Edukiontziak behar bezala egokituta izatea hondakinak bereizteko —hau da, papera, ontziak, beira eta hondakinen gainerako frakzioa—, tabernako langileek zein erabiltzaileek erabil ditzaten.

Ingurugiro-jardunbide egokiak jakinaraztea hondartzaren erabiltzaileei (horretarako, leku agerian kartel bat jarriko da).

8. Emakidunaren betebeharrak.

Emakidunaren bete beharrekoak hauek izango dira:

- Instalazioak eta emakidan jarritako baldintzak errespetatzea. Emakidunak 1. Puntuan, "Kontratuaren gaia"-n xedatutako helburuetarako bakarrik erabiliko ditu instalazioak. Ezin ditu instalazioak beste jarduera batzuetarako erabili nahiz eta baimendutakoekin bateragarriak izan.

- Langileria uniformatzea eta nonbait "Arrigorri hondartza Ondarroa" agertzea.

- Terrazako altzariak, EZIN IZANGO DUTE PUBLIZITATERIK IZAN, onartutako identifikazio bakarra, "Arrigorri hondartza Ondarroa" izango dira.

- Eraikin eta instalazioetan sumatzen dituen matxura edo anormaltasunak berehala jakinaraztea. 4.1 puntuan, "Taberna-kafetegia zerbitzua", azaltzen den moduan, instalazioen zein makinen ordezkapen edo mantentze gastuak Emakidunaren kontura izango dira.

- Ezin izango dio bere eskubidea beste inori aldatu eta errentan eman ere ez.

- Instalazioetatik kanpo ezin da iragarki, propaganda edo publizitate komertzialik erakutsi debekatua dago eta. Ezta inolako ontzi, botila kaxa edo antzekorik pilatu.

- Emakidunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sortutako kalteak eta galerak bere gain hartzea. Erantzukizun zibileko asegurua egin beharko du jardueraren ondorioz gainontzeko pertsonei eragin ditzakeen kalteetarako, baita bere enplegatuek jasan ditzaketen gaitzetarako ere ugazabaren erantzukizun zibilaren asegurua eduki behar du, ezbehar bakoitzeko 150.000 euro artekoa gutxienez eta 300 euroko frankizia gehienez.

- Eraikinean dagoen materialak lapurreta, kalte edo ezbeharren bat jasanez gero, Emakidunaren ardurapean geldituko da eta Udalari ezin izango dio eskatu erantzukizunik edo kalte-ordainik.

- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna

- Komunikazioak —errotuluak, kartelak, oharrak, seinaleak...— euskaraz egingo dira, baita sare sozialetan iragarriko diren mezuak ere.

- Normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea":

    - Ahozko komunikazioetan lehen hitza euskaraz egingo da beti, eta, handik aurrera, herritarrak aukeratuko duen hizkuntza ofizialean.

    - Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak. Komunikazio idatziak euskaraz egingo dira.

- Aisialdiko nahiz kulturako ekintzaren bat antolatzen bada, alde batetik euskaraz antolatua izango da eta bestetik, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko baloreak sustatu edota emakume artisten presentzia areagotzea lehenetsiko da.

9. Zerbitzuaren Gastuak.

- Emakidunaren kontu izango dira zerbitzuak emateko beharrezko gastu arruntak, hala nola, argi indarra, ur kontsumoa... baita instalazioen zein makinarien konpontze eta mantentze gastuak ere eta zerbitzuan alta ematea ere bai.

XEDEA	GASTOAK 2019	GASTOAK 2020	GASTOAK 2021
Argindarra. (619535740)	4.237,35 €	3.970,00 €	4.197,26 €
Ura (12444132)	1.127,40 €	1080,34 €	1.150,19 €
Propano Gas Botilak			
Higiene gordegailuen kudeatze zerbitzua			
Arratoi eta intsektuen erradikatzea			

- Emakidunak hornitzaileei ordaintzen ez badie, Udalak ez du bere gain hartuko ordaindu beharra, eta instalazioetan zerbait kaltetu, apurtu edo lapurtuko balitz ezta ere.

- Kontratua bukatzean, Emakidunak eraikinean duen material guztia aterako du hamabost (15) eguneko epean eta Udalak horrela egiteko errekerimendurik gabe. Horrela egin ezean, materiala Emakidunaren ardurapean gelditzen da eta kalte edo ezbeharren bat gertatuz gero, ezin izango dio erantzukizunik edo kalte-ordainik eskatu Udalari.

10. Zerbitzua ikuskatzea:

Emakidunak, lizitaziora aurkeztearren Baldintza-Agiria onartuko du, eta Udalari eta bere eragileei baimena emango die lokalean sartzeko honen egoera eta funtzionamendua ikuskatzeko eta baita Baldintza-Arau hauek betetzen dituen ala ez egiaztatzeko. Guzti hau, publikoari zerbitzu ona eskaintzeko baldintzak betetzen ari direla egiaztatu ahal izateko.

Ondarroan, 2022ko apirilaren 4an

Maria Iriondo
Udal aparejadorea
Espedientearen ardura duen teknikaria

MARIA IRIONDO ARRIETA - 78871111V

Digitalki sinatuta norengandik: MARIA IRIONDO ARRIETA - 78871111V
Data: 2022.04.04 10:01:34 +02'00'